



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko martxoaren 19a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00036. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erakundeak oro har eta Nafarroako toki-entitateak bereziki premiatzen baititu adieraz dezaten beharrezkoa dela onestea administrazio publikoen aurrekontu-egonkortasunerako eta zor publikorako helburuak ezartzen zituen akordioa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztu du (2. or.).
- 11-24/MOC-00037. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita behar adina baliabide ezar ditzan, sei hilabeteko epean gehienez ere ebatz ditzan atzerrian lortutako titulu akademikoak homologatzeko eskabideak. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00038. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektorearen izaera estrategikoa blinda dezan Nafarroako Foru Komunitatean. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- 11-23/MOC-00039. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita autonomoendako leihatila bakarra abian jar dezan. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).
- 11-23/MOC-00040. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita landa-eremuetan biblioteka-zerbitzu ibiltaria bultzatzen jarrai dezan. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkeztu du (7. or.).
- 11-24/MOC-00034. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita behar adina baliabide ezar ditzan, sei hilabeteko epean gehienez ere ebatz ditzan atzerrian lortutako titulu akademikoak homologatzeko eskabideak. Mozioa erretiratzea (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00027. Galdera, kirol-federazioen hauteskunde-prozesuak abian jartzeko Kultura, Kirol eta Turismoko Departamentuak emandako foru agindu berriari buruzkoa. Kultura, Kirol eta Turismoko Batzordean izapidetzea (9. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (10. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00036. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erakundeak oro har eta Nafarroako toki-entitateak bereziki premiatzen baititu adieraz dezaten beharrezkoa dela onestea administrazio publikoen aurrekontu-egonkortasunerako eta zor publikorako helburuak ezartzen zituen akordioa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erakundeak oro har eta Nafarroako toki-entitateak bereziki premiatzen baititu adieraz dezaten beharrezkoa dela onestea administrazio publikoen aurrekontu-egonkortasunerako eta zor publikorako helburuak ezartzen zituen akordioa.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2024ko martxoaren 21eko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Parlamentuak erakundeak oro har eta Nafarroako toki-entitateak bereziki premiatzen ditu adieraz dezaten beharrezkoa zela onestea administrazio publikoen aurrekontu-egonkortasunerako eta zor publikorako helburuak ezartzen zituen akordioa. Mozio honen jarraipena Lurralde Kohesiorako Departamentuak egingen du.

Zioen azalpena

2024ko martxoaren 6an, Senatuak, UPNren, PPren eta Voxen botoekin, eragotzi egin zuen onets zedin administrazio publikoen eta azpisektore guztien 2024-2026 aldirako aurrekontu-egonkortasunerako eta zor publikorako helburuak eta Estatuaren 2024rako aurrekontuko gastu ez-finantzarioaren muga ezartzen zituen akordioa, bai eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan ezarritako berrerekatze-plana Gorte Nagusietara igortzeko akordioa ere.

Akordio horiek, Espainiako Gobernuak onetsiak eta egiaz dagoen gehiengo sozial eta politikoari erantzuten dion Diputatuen Kongresuak berretsiak, indarrean jarraitzeko beharrezkoa zuten Senatuaren onespina, baina UPNk, PPK eta Voxek hori eragotzi dute.

Orain, erabaki horren ondorioz, aurrekontuak tarte horrekin jada onetsita zeuzkaten Nafarroako udalek egokitu egin beharko dituzte beren aurrekontuak % 0,2ko superabit-exijentziara, eta aurrekontuak izapidetzen ari zirenek edo aurrekontuak onesteke zeuzkatenek irizpide berri hori aplikatu beharko dute.

Erabaki horrek berekin dakar, azken batean, Nafarroako udalek eta toki-entitateek baliabide gutxiago edukiko dutela beren eskumeneko esparruan politika publikoak aplikatzeko eta ezartzeko.

Horregatik guztiagatik:

1. Nafarroako Parlamentuak erakundeak oro har eta Nafarroako toki-entitateak bereziki premiatzen ditu adieraz dezaten beharrezkoa zela onestea administrazio publikoen eta azpisektore guztien 2024-2026 aldirako aurrekontu-egon-

kortasunerako eta zor publikorako helburuak eta Estatuaren 2024rako aurrekontuko gastu ez-finantzarioaren muga ezartzen zituen akordioa, bai eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan ezarritako berrerekatze-plana Gorte Nagusietara igortzeko akordioa ere.

2. Nafarroako Parlamentuak dio ez dagoela ados akordio hori onetsi ez izanarekin, urratu egin delako, nabarmen urratu ere, interes orokorra,

eragotzi egin baita toki-entitateek baliabide gehiago edukitzea politika publikoak ezartzeko herritarren mesedetan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erabaki hau Espainiako Senatuari igor diezaion.

Iruñean, 2024ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/MOC-00037. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita behar adina baliabide ezar ditzan, sei hilabeteko epean gehienez ere ebatz ditzan atzerrian lortutako titulu akademikoak homologatzeko eskabideak

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez einaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita behar adina baliabide ezar ditzan, sei hilabeteko epean gehienez ere ebatz ditzan atzerrian lortutako titulu akademikoak homologatzeko eskabideak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen baitu behar adina baliabide ezar ditzan, sei hilabeteko epean

gehienez ere ebatz ditzan atzerrian lortutako titulu akademikoak homologatzeko eskabideak.

Zioen azalpena

1990eko hamarkadaren bigarren erdialdetik aitzina batik bat, atzeritik heldu diren milioika pertsona hartu ditu Espainiak. Etorkinek gizarte ezberdin batera egokitzerakoan gainditu behar izan dituzten zailtasun guztiei –kultura, lana, eskola, harremanak eta arlo gehiagokoak– sarritan gehitu behar izan zaie jatorriko herrialdeetan lortutako titulu akademikoen homologazioa. Argi dago homologazio horrek berebiziko garrantzia duela etorkin horiek lana lortzeko eta euren ordainsari-baldintzak hobetzeko.

Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua ezartzen duenez, Estatuak du arlo horretako eskumen osoa; izapideen kudeaketaren parte bat, berriz, zenbait autonomia-erkidegori laga zaio. Geroago, 86/1987, 285/2004 eta 967/2014 errege-dekretuetan zehaztu ziren atzerrian lortutako tituluak homologatzeko baldintzak eta prozedurak. Halere, urriaren 18ko 889/2022 Errege-dekretuak onartu duen lege, ordura artean indarrean zegoen araua ez zen gai izan "atzerriko hezkuntza-sistemetan lortutako unibertsitateko titulazioa onartzeko eskabideen bolumen-igoerari aurre egiteko, homologaziorako eta baliokidetasunaren deklaraziorako prozeduren bidez. Horrek, arauan ezarritako prozeduraren konplexutasunarekin batera, ekarri du espedienteak pilatzea eta, ondorioz, ebazpen horien ebazpena atzeratzea". Errege-dekretu horrek, izan ere, helburu zeukan "ins-

trukzio- eta ebazpen-denborak sei hilabete baino gehiago ez irautea eta herritarrak une oro kontsultatu ahal izatea bere eskabidearen izapidetzea zertan den".

Baina urtebete baino gehiago igarota, errealitatea da errege-dekretu horren asmo onak ez direla bete eta atzerrian lortutako tituluak homologatzeko epe erreala bi urtetik gorakoa dela oraindik ere, eta horrek kalte handia eragiten die milaka pertsonaren bizi-kalitateari eta lan-aukerei.

Erabaki-proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du behar adina baliabide ezar dezan 889/2022 Errege-dekretuan ezarritakoa betetzeko eta sei hilabete epean gehienez ere ebazteko atzerrian lortutako titulu akademikoak homologatzeko eskabideak.

2.- Mozio honen jarraipena Hezkuntza Batzordeak egingen du.

Iruñean, 2024ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

11-24/MOC-00038. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektorearen izaera estrategikoa blinda dezan Nafarroako Foru Komunitatean

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektorearen izaera estrategikoa blinda dezan Nafarroako Foru Komunitatean.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Landa Garapeneko Departamentuari zuzendutako honako mozio hau aurkeztzen du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Asteak daramatzagu Nafarroako lehen sektorearen protestak ikusten. Egoera hori gehiegi ari da luzatzen, eta beharrezkoa da administrazioak horretaz jabetzea eta behingoz neurriak hartzea nekazariekin akordioetara heltzeko.

Gure lehen sektorea funtsezko zutabea da bai ekonomiari bai gure ohiturei begira. Kalitatezko enpleguak sortzen ditu eta despopulazioari aurre egiten laguntzen du, bizirik mantentzen dituelako landa-eremuak. Sektore horren garrantzia ekonomiaz haraindikoa da; izan ere, gure lurrarekiko lotura sortzen du, eta ingurumenaren kontserbazioa sustatzen.

Beharrezkoa da administrazio publikoek lehen sektoreari babes sendoa ematea eta haren balioa eta garapen jasangarrirako egiten duen ekarpena aitortzea. Hartara, abian jarri behar dira nekazari-tza- eta abeltzaintza-jardueren modernizazioa eta berrikuntza sustatzeko politikak, bai eta baliabide-ekiko nahiz merkatuekiko sarbidean ekitatea bermatzeko neurriak ere. Prestakuntza eta belau-naldi-erreleboa sustatu behar dira landa-eremuan, eta bermatu egin behar da erkidegoarentzat hil ala bizikoa den sektore horretan aukera erakargarriak aurkituko dituztela belau-naldi berriek. Lehen sektorea babesteak, gure ekonomiari laguntzeaz gain, gure ohiturak iraunarazteko balio du.

Hortaz, ezinbestekoa da Nafarroako eta Espainiako gobernuek sektore horren aldeko apustu argia egitea, foru-erkidegoan lehen sektorearen

lehiakortasuna eta hazkunde jasangarria bermatuko dituen fiskalitate justua edukitzean laguntzeko.

Gure nekazariak beste autonomia-erkidego batzuetako nekazariak baino okerrago egon ez daitezenean, funtsezkoa da politika fiskal mesedegarriak ezartzea Nafarroan, merkatuan aukera-berdintasuna bermatuko dutenak. Halaber, administrazio-izapideak sinplifikatzeak eta erregulazio fiskalak malgutzeak inbertsioa eta berrikuntza susper ditzakete sektorean, eta efizientzia eta lehiakortasuna handitzea sustatu hartara.

Funts-funtsezkoa da Nafarroako Gobernuak onartzea neurri fiskal horiek garrantzitsuak direla, ezinbesteko tresna diren aldetik, lehen sektorearen garapena bultzatzeko. Hori eginez gero, nekazarien eta abeltzainen bideragarritasun ekonomikoa sustatzeaz gain, elikagaien segurtasuna indartzen da.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki proposamen hau onesten du:

1. Nafarroako Parlamentuak babes adierazten die foru-erkidegoko nekazarien eta abeltzainen erreibindikazioei.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehen sektorearen izaera estrategikoa blinda dezan Nafarroako Foru Komunitatean.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sektorearen beharizanak bilduko dituen talka-plan bat taxutu dezan, nekazaritzako organizazio guztiekin hitz eginda.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitatean jarduten den sektore primarioaren fiskalitatea egokitu dezan, egiten duten lana ekonomikoki bideragarria izan dakien eta inguruko beste erkidego batzuetako nekazariak eta abeltzainak bezain lehiakorrak izan daitezen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 14an

Eleduna: Javier García Jiménez

11-23/MOC-00039. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita autonomoendako leihatila bakarra abian jar dezan

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita autonomoendako leihatila bakarra abian jar dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularrak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Eskubide Sozialesko Departamentuari zuzendutako honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Balioan jarri behar da 46.554 langile autonomoek beren negozioak irekitzean egunero egiten duten ahalegina eta daukaten ausardia. Baina langile horien ikusezintasunari ere eman behar zaio amaiera, izen-abizenak baitituzte, haien arazoak kontuan hartuko dituzten politika espezifikoak sustatzen hasteko eta etengabe aldatzen ari den merkatura egokitzen laguntzeko.

Gure lurraldean instalatuta dauden enpresa gehien-gehienak autonomoenak edo gehienez ere bi langile dituzten enpresa txikiak dira. Gure erkidegoko enpresen % 80 dira; gure motor ekonomikoetako bat, hain zuzen ere. Horregatik da hain garrantzitsua enpresaburuaren figura ikusaraztea eta balioestea, eta administrazio publikoek sektore horrekin aktiboki lan egitea hura bultzatzeko eta haren iraupena eta garapena bermatzeko.

Horretarako, beharrezkoa da lana eta familia bateragarri egiteko neurriak hartzea, oztopo burokratikoak kentzea edo langile autonomoen lanpostu berriak sor daitezen sustatzea.

Zoritxarrez, egunez egun pertsiana itxi behar duten negozioak daudela ikusten dugu. Hainbat arrazoi daude autonomoak beren negozioak ixtera eramaten dituztenak: egoera ekonomikoa, belau-naldi-erreleborik eza edo arrazoi pertsonalak.

Gazteen ekintzaitzearik ezak –Nafarroako gazteak dira Espainia osoan ekintzaitzearako bokazio gutxien dutenak– agerian uzten du sektore horrek administrazioen bultzada eta babes handiagoa behar duela.

Horregatik guztiagatik:

1. Nafarroako Parlamentuak aintzatesten eta balioan jartzen du autonomoek gure erkidegoaren hazkunde eta garapen sozial eta ekonomikoari egindako ekarpena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du autonomoendako leihatila bakarra abian jar dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du autonomo berriendako zero kuota abian jar dezan, lehenbiziko urtean edo lanbide arteko gutxieneko soldatara iritsi arte.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du administrazio barruko traba burokratikoak ken ditzan, izapide administrazioak errazteko.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du autonomoek langileak kontratatu ahal izateko neurriak abian jar ditzan.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du prestakuntza etengabea susta dezan lan autonomoaren bizitzan zehar.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurri eraginkorrak eta langile autonomoen erantzukizun partekatua susta ditzan.

8. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du modu aktiboan lan egin dezan lan autonomoak dakartzan laneko arriskuen prebentzioaren arloan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 14an

Eleduna: Maribel García Malo

11-23/MOC-00040. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita landa-eremuetan biblioteka-zerbitzu ibiltaria bultzatzen jarrai dezan

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko matxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita landa-eremuetan biblioteka-zerbitzu ibiltaria bultzatzen jarrai dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

"Biblioteka" deritzon biblioteka-zerbitzua 1998tik ematen da Aurizberrin.

"Bibliotekak" biblioteka-zerbitzu ibiltaria ematen du Pirinioetako landa-ingurune sakabanatu horretan. Ekimen arrakastatsu eta txalogarri horrek –zeinak hainbat sari jaso baititu estatuan– lau haranetan banatzen diren 3.000 biztanleri eman diezaieke biblioteka-zerbitzua; guztira, 30 herri (kontzeju) eta 15 udal dira.

Estellerriko "biblioteka", berriz, 2020an jarri zen abian, ibilgailua erosi eta ondoren egokitu zenean. Halatan, egiaz abian jarri zen 2022ko

urrian, 28 herritan barrena ibiltzen hasi zenean, eta herrien kopuru hori handituz joan da gero.

Estellerriko "biblioteka" 8 ibilbide egiten ditu 2024ko urtarrilaz geroztik; guztira, 51 herritara eta 8.500 biztanle ingururengana heltzen da.

Leitzako liburutegiaren kasuan, antzeko proiektu bat da abian. "Liburutegi ibiltaria" deritzon proiektu hori herriko liburutegiaren ekimenez sortu zen, eta horri esker liburuaren mailegu-zerbitzua beste herri batzuetaraino heltzen da (Arana, Goizueta eta Areso), eta 4.100 biztanleri eman diezaieke zerbitzu hori.

Biblioteka-zerbitzu ibiltariak oso tresna baliagarriak dira funtsezko zerbitzu publiko hori herritarrengana hurbiltzeko, onuragarriak dira despopulazioaren aurka borrokatzeko, irakurtzeko ohitura sustatzen dute, sormena sustatzen dute, gizarte-arrakala murriztea ahalbidetzen dute eta lurraldea kohesionatzen dute.

Nafarroako 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean bi aurrekontu-partida jasotzen dira Nafarroako landa-eremuetan liburutegi-zerbitzu ibiltariak finkatzeko eta ezartzen jarraitzeko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Bakarra. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du liburutegi-ibiltarien zerbitzuak bultzatzen eta finkatzen jarrai dezan arian, halako moduan non 2030a baino lehen landa-eremuetako herritar guztiek baliatu ahal izan dezaten funtsezko zerbitzu publiko hori.

Iruñean, 2024ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

**11-24/MOC-00034. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-
tzen baita behar adina baliabide ezar ditzan, sei hilabeteko epean
gehienez ere ebatz ditzan atzerrian lortutako titulu akademikoak
homologatzeko eskabideak**

MOZIOA ERRETIRATZEA

2024ko martxoaren 18an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Unión del Pueblo Navarra talde parlamentarioko Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Espainiako Gobernua premia-tzen da behar adina baliabide ezar ditzan, sei hilabeteko epean

gehienez ere ebatz ditzan atzerrian lortutako titulu akademikoak homologatzeko eskabideak. Mozioa 2024ko martxoaren 15eko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00027. Galdera, kirol-federazioen hauteskunde-prozesuak abian jartzeko Kultura, Kirol eta Turismoko Departamentuak emandako foru agindu berriari buruzkoa

KULTURA, KIROL ETA TURISMOKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2024ko martxoaren 18an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Kultura, Kirol eta Turismoko Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, kirol-federazioen hauteskunde-prozesuak abian jartzeko Kultura, Kirol eta Turismoko Departamentuak emandako foru

agindu berriari buruzkoa, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak erantzun dezan. Galdera 2024ko urtarrilaren 24ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2024ko apirilaren 11ko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
